



“Andaluzian jaio banintz toreroa izango nintzen”

Juan Gorriti | Hori bai artista!

Ordu erdiko elkarriketaren ostean ez ziola piperrik ulertzen esan zion Bartzelonako kazetari batek. Lasai egoteko erantzun zion Gorritiren emazteak, 36 urteren ondoren horixe bera gertatzen omen zaio berari.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Josu Santesteban

Hara zer urtetan jaio zen ez dakien gizona!

Karneta galdu nuenetik ez dut sekula jakiten 1942 edo 1943koa naizen, baina uste dut 1941ean jaio nintzela. Zer inporta du?

Arrazoi duzu, artea da inporta duena.

Denbora da artistarik handiena. Horregatik bihurtzen ditu koadro eta eskultura garai bateko miseriak. Nik Oteizari aspaldi esan nion: “Hori artea bada ni galeria batean jaio nintzen!”.

Lekutan utzi duzu zurea *art brut* definitzen duen jakintsua!

Ni txoriak bezalakoa naiz. Txoriek hegana egiten dute baina ez dakite txantxangorriak, zozoak, txepetxak ala zapelatzak diren. Guk jartzen dizkiegu izenak. *Art brut* ala *art brut*, nik ez dakit zer egiten dudana!

Oteizaren ustez eskulturei ateak jartzen dizkizu.

Maixu handia zen Jorge, eta bi gauza erakutsi zizkidan: Euskal Herria maite nuena baino gehiago maitatzen, eta ostrak jaten. Pentsa, orain ostrak pintatu egiten ditut!

Esango dute berriz laugarren dimentsioa dela zurea.

Laugarren dimentsioa bihotzean dago, denboraren eta maitasunaren artean.

Denbora gora eta denbora behera, zu adinarekin obsesionatuta zaude!

Nik 500 urte ditut, baina arbolekin bezala gertatzen da. Batzuk 60 urterekin zaharrak dira eta beste batzuk 200ekin gazteak.

500 urteko eskultoreak bere bezeroak hautatzeko askatasuna dauka?

Askatasun oso-oso. Aberaskiloei sekulako dirutza kobratzen diet xumeagoei oparitu ahal izateko. Baina Lucio Urtubiak esango lukeen bezala, ez dut lapurretarik egiten, justizia baizik.

Hori da hori konpromisoa!

Andaluzian jaio banintz toreroa izango nintzen. Baina Euskal Herrian sortua naiz, eta herri honen malkoarekin konprometituko ez banintz zer artista klase nintzateke?

Adar jotzailea, akaso?

Behin jauntxo bat etorri zitzaidan adreiluan inbertitzeari utzi eta artean inbertitu nahi zuela esanez. Humanidadearen lehen artista artzaina denez, gaztatan inbertitzeko aholkatu nion, sekulako forma zeukatela, eta ardoari eskulturek baino hobeki laguntzen ziotela. Ez zen gehiago itzuli... kar, kar, kar!

Zuri, ordea, hil eta gero ere itzultzeko intentzioa nabari zaizu.

Jaio ez nintzen ez naiz hilko. Laboarekin ibiliko naiz laino arteko taberna horretan ardo ona edaten. Maitasuna duen pertsona bat ez da desagertzen, baina gauzak gertatu arte, ezin jakin zer daukagun barrenean. ■